

699/2025 EBAZPENA, maiatzaren 9koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen otsailaren 17ko 313/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 5eko EHAA 44 zk. eta 2025eko martxoaren 12ko EAO 61 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 2an amaitu zen.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen apirilaren 8koa 594/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)



Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 9a.

 Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,
KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA
ENRIQUE MANUEL BAREZ HERNÁNDEZ.





I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA
ERREHABILITAZIOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA.

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Zuriñe Fernández Fernández de Leceta and.

Baztertutak:

- Inor ez.

Baztertze arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Juan TIMIRAOS FERNÁNDEZ jn.

Ordezkoa: Pedro MORRONDO VALDEOLMILLOS jn.

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Itziar NEVE LETE and.

Ordezkoa: Edurne OMAECHEVARRIA LEGARRA and.

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Salvador Iván CARBAJO MARTÍNEZ jn.

Ordezkoa: Ricardo JARIOD GAUDES jn.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: María Teresa CISNEROS LANUZA and.

Ordezkoa: Elena MARTÍNEZ GARCÍA and.

Laugarren batzordekidea:

Titularra: Juan Ignacio REOYO DÍEZ jn.

Ordezkoa: Pedro Ignacio TEJADA EZQUERRO jn.

Idazkaria:

Titularra: María Rosario MARTÍN ROMÁN and.

Ordezkoa: María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.